

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektua eta Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua” ek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak, 2021eko irailaren 16an, 616/2021 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Aldi baterako okupazio eremua handitzea “Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektua” eta “Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua” gauzatzeko. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 6ko 119/2018 Erabakiak behin-behinean onartu zituen Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektua eta Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua, eta hasierako onespina eman zion horiek eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari, eta jendaurrean jartzeko izapideari.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 449/2018 Erabakiaren bidez, erabaki zen behin betiko onestea “Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeko proiektua” eta “Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua”

Geroago, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 30eko 588/2018 Erabakiaren bidez, jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzun, proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onetsi eta haiek okupatu eta erosi beharra adierazi zen, bai eta premiaz okupatu behar direla ere.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozedura bidez izapidetu zen desjabetze espedientea.

Arabako Foru Aldundi honen Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak, 2021eko uztailaren 14ko idazki baten bidez, hau adierazi du: “Kolektore berriak eraikitzeko lanak egitean, luraren ezaugarriengatik eta egindako lubakien sakonagatik hartu behar izan diren segurtasun neurrien ondorioz, beharrezkoa izan da hasieran aurreikusitakoa baino azalera handiagoa okupatzea aldi baterako”, eta proposatu du 2, 3, 26 eta 28 zk.ko finketako aldi baterako okupazio azalera 1.510,50 m<sup>2</sup>, 639,91 m<sup>2</sup>, 3.474,10 m<sup>2</sup> eta 1.372,15 m<sup>2</sup> handitzea, hurrenez hurren.

Horregatik, adierazi den handitzea egiteko, sortu behar dira desjabetze espedienteko 2/100, 3/100, 26/100 eta 28/100 finkak, honekin batera doan eranskinean ageri direnak.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzearako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz.

Gainera, esan beharra dago ezen, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri premiaz okupatu behar hori egikaritu beharreko proiektuen handitzei ere aplikatu behar zaienez, bidezko dela eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideei ekitea presako prozeduraren bidez.

Azterturik Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak egindako txostena, aurrekontu kreditua dagoela adierazten duena, eta Desjabetze Atalak egindakoa, Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 326/2019 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez foru diputatuen esku uzten baitira ordainketak formaz eta egitez agintzearekin loturiko zenbait ahalmen,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldi baterako okupazio eremua handitzea "Aguraingo hodi biltzaileen sare berria eraikitzeke proiektua" eta "Aguraingo HUA berriaren oinarritzko proiektua" gauzatzeko, honekin batera doan eranskinean zehazten denaren arabera, nahitaezko desjabetzea egiteko.

Bigarrena. 3.349,05 euroko kreditu atxikipen gehigarria egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuaren 50106.5300.6000001 "Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-3041/000.21.1.21), aldi baterako okupazioaren balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Hirugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren kopurua ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Laugarrena. Foru agindu honek administrazio bideari amaiera ematen dio, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, honako hau jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke egintza hau agindu duen erakundeari berari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertzeke errekurtsuaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Aguraingo Udaletzeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunen titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 5a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

**Bide Azpiegituren eta  
Mugikortasunaren Saila  
Departamento de Infraestructuras  
Viarías y Movilidad**

**Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava**

AGURAINGO HODI BILTZAILEEN SARE BERRIA ERANITZEKO PROIEKTUA ETA AGURAINGO HUA BERRIAREN OINARRIZKO PROIEKTUA  
PROYECTO CONSTRUCTIVO DE LA NUEVA RED DE COLECTORES DE SALVATIERRA-AGURAIN Y PROYECTO BÁSICO DE LA NUEVA EDAR DE SALVATIERRA

FINZAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGUNTZAKO SZALERA m2		Esp./Expte.	ORDUA
		POLIGONO	PARCELA			UDALERRIA	TEMPORAL		
26/100	TORIBIO GARCIA DE ANDOIN ELIZONDO	1	760	AGURAIN / SALVATIERRA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DEL LABOR SECANO	3.474,10	3.474,10	30/11/21	10:30